

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Ekintzaileei laguntzeko beken udal programaren 2020ko deialdiaren lehen faseko eskabideak ebaztea

Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko abenduaren 9ko erabakiz onetsi ziren Gasteizko Udala-ren dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorrak 2020. urterako, eta horien 2. apartatuan zehazten dira aurreikusitako eremuak eta dirulaguntzen ildoak, besteak beste, Enpresen Zerbitzuaren 25. ildoak, "Ekintzaileentzako beka" izenekoa (2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 147. zk.).

Aurreikusitako helburuak eta ekintzak garatzeko, eta aipatutako deialdiaren oinarri orokorretan ezarritakoari lotuz, Tokiko Gobernu Batzarrak ekintzaileentzako beken udal programaren oinarriak eta deialdi publikoa onetsi zituen 2020ko martxoaren 6ko erabakiz (2020ko apirilaren 1eko ALHAO, 38. zk.), 83.700,00 euroko zuzkidurarekin, 2020ko ekitaldirako onartutako udal aurrekontuko 0821.4331.489.49 partidaren kontura.

Deialdiaren lehen faserako eskabideak aurkezteko epea 2020ko ekainaren 15ean bukatu zelarik, 2020ko uztailaren 13ko idazki baten bitartez Enpresen Zerbitzuko teknikariek jakinarazi zuten hogeita bost eskabide jaso zirela epearen barruan, eta horietatik bostek ez zituztela betetzen deialdiaren betekizunak.

Eskabide horiek aztertu ondoren, Hautatze eta Jarraipen Batzordeak 2020ko uztailaren 13an egindako bilkuran analizatu eta eztabaidatu ziren, eta balioetsi. Ikusirik betekizunak betetzen zituztela eta aurkeztutako proiektuak egokiak direla, deialdia ebazteko proposamena aurkeztu zitzaion Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari, eskatutako beka eta horiei dagozkien diru-kopuruak eman zekizkien 9. puntuan ezarritako gutxieneko 65 puntuak gaingitu zituzten hogeitazazpi eskatzaileei, eta puntuazio hori lortu ez zuten bi eskabideak gehi deialdiaren 3. eta 14. oinarrietan ezarritako betekizunak betetzen ez zituzten hirurak, berriz, ezetsi zitzaion —horietako bitan, eskatzaileak ekonomia-jarduera batean ari ziren beren kabuz, eta beste batean, xede eta helburu berak zituen beste laguntza baten esleipenduna zen—.

Hona hemen balioespenaren emaitza:

	NANa	Prestakuntza	Esperientzia	Proiektua	Bideragarritasuna	Plana	Interesa	Puntuak
1	72720037V	14	15	14	11	9	27	90
2	72741271E	14	15	14	11	9	27	90
3	72754071B	14	13	14	11	9	27	88
4	45625216R	13	15	13	10	9	22	82
5	44679928J	14	15	14	11	9	19	82
6	16286679B	10	10	14	11	10	27	82
7	58030878S	12	15	10	10	7	24	78
8	72753979B	12	13	10	10	7	24	76
9	78987958R	12	10	11	9	8	25	75
10	16630470K	12	11	11	11	8	22	75
11	72747949F	12	12	10	12	7	21	74
12	72840942B	14	12	11	9	6	21	73
13	72740782Q	12	12	10	10	7	20	71
14	72845723P	11	12	10	10	7	20	70
15	72751097G	12	11	9	7	6	20	65
16	72831480W	10	8	9	9	7	22	65
17	72740621Q	11	9	9	8	7	21	65
18	72757301K	11	8	10	8	6	22	65
19	Y4401974H	10	10	11	8	5	21	65
20	Y4313675Q	10	10	11	8	5	21	65
21	72826073T	10	10	8	7	4	21	60
22	44632351T	10	10	7	6	5	21	59

Deialdian ezarritako prozeduraren arabera, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari dagokio eskabideak ebaztea.

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, eta Hautatze eta Jarraipen Batzordeak egindako proposamena aintzat harturik, hau ebatzi du Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saila Saileko zinegotzi ordezkariak, eskumenak eskuordetzeko 2020ko martxoaren 6ko erabakiaz baliaturik.

Ebatzi du

Lehena. Deialdiaren 3. eta 14. oinarrietan ezarritako betekizunak betetzen ez direla egiaztatu ondoren, pertsona hauek eskatutako ekintzaileentzako beka ukatzea:

	NANa	ARRAZOIA
1	72685781P	Norberaren kabuz ekonomia jarduera batean aritzea (3. oinarria)
2	72743510F	Norberaren kabuz ekonomia jarduera batean aritzea (3. oinarria)
3	44681837J	Beste dirulaguntza baten onuradun izatea xede bererako (Lanbideren laguntza ideia garatzeko, 2014. 14. oinarria)

Bigarrena. Aurkeztutako eskabideak eta proiektuak balioetsi ondoren, eskabide hauek ezeste, deialdiaren 9. oinarrian ezarritako gutxienerako 65 puntuak lortu ez dituztelako:

	NANa	Puntuak
1	72826073T	60
2	44632351T	59

Hirugarrena. Deialdian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu eta eskatzaile bakoitzak jasoko lukeen "dirulaguntza teorikoa" kalkulatu ondoren (3. eta 9. oinarriak), eta horien batuketak (31.760,00 euro) deialdiaren lehen faserako diru-zuzkidura (41.850,00 euro) gainditzen ez duela ikusirik, erabaki dut eskatzaile hauei bekak ematea Gasteizen enpresa-proiektu bana abian jar dezaten:

	NANa	Puntuak	Dirulaguntza eskatua	Dirulaguntza emana
1	72720037V	90	2.500	1.250
2	72741271E	90	2.500	1.250
3	72754071B	88	2.380	1.190
4	45625216R	82	2.020	1.010
5	44679928J	82	2.020	1.010
6	16286679B	82	2.020	1.010
7	58030878S	78	1.780	890
8	72753979B	76	1.660	830
9	78987958R	75	1.600	800
10	16630470K	75	1.600	800
11	72747949F	74	1.540	770
12	72840942B	73	1.480	740
13	72740782Q	71	1.360	680
14	72845723P	70	1.300	650
15	72751097G	65	1.000	500
16	72831480W	65	1.000	500
17	72740621Q	65	1.000	500
18	72757301K	65	1.000	500
19	Y4401974H	65	1.000	500
20	Y4313675Q	65	1.000	500
	TOTAL		31.760	15.880

Laugarrena. Enpresak Sustatzeko udal Zerbitzuko teknikariak izendatzea enpresa-proiektu horien tutoretzaren eta jarraipenaren arduradun.

Bosgarrena. Dirulaguntza horien zenbatekoa (31.760,00 euro) 2020rako onetsitako udal aurrekontuko 0821.4331.489.49 partidaren kontura jasota uztea (7. oinarria), eta onuradunei horien ehuneko 50 ordaintzea (4. oinarria).

Seigarrena. Beken onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, horiek ezereztu ahalko dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago, jasotako diru-kopurua itzultzeko eskatuko da.

Zazpigarrena. Deialdiaren 4. oinarrian ezarritakoari jarraituz, deialdiaren lehen fasean soberan geratutako hamar mila eta laurogeita hamar euroko saldoa (10.090,00 euro) bigarren fasera aldatzea, eta horretarako aurreikusitako zuzkidura handitzea.

Zortzigarrena. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsua Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Nolanahi ere, aldez aurretik aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahalko da bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, araudi espezifikoren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 15ean

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI JÁUREGUI